Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2014ko urriaren 17an izandako ohiko bileran, aho batez, jarraian transkribatu den Heriotza Zigorraren aurkako Nazioarteko egunari buruzko Erakunde Adierazpena onartu zuela:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 17 de octubre de 2014, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional sobre el Día Internacional contra la Pena de Muerte:

*"Heriotza zigorra munduko herrialde askotako zigor kodeetan eta prozeduretan txertatua dagoen zigor mota da. Zigor mota hau, Giza Eskubideen aitorpen unibertsalaren kontra doa, ez baitu bizitzarako eskubidea ez eta pertsonen tratu txar eta ankerra ez izatea bermatzen, aitorpenaren 3. eta 5. artikuluek dioten moduan.*

*"La pena de muerte es una condena recogida en los códigos y procedimientos penales de muchos países del mundo. Este tipo de pena es contraria a la Declaración Universal de los Derechos Humanos, porque no respeta el derecho a la vida ni garantiza el que no se trate mal y cruelmente a las personas, tal y como recogen los artículos 3° y 5° de la Declaración.*

*Urriaren 10ean Heriotza Zigorraren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu osoan, eta Udal honek, aldarri honekin bat egin nahi du adierazpen honen bidez.*

*El 10 de octubre se celebra en todo el mundo el Día Mundial Contra la Pena de Muerte, y este ayuntamiento quiere adherirse a esa reivindicación mediante esta declaración.*

*Nahiz eta heriotza zigorra indargabetzerantz etengabe eta sendo jo munduko alde guztietan, nazio Batuen idazkari nagusiaren azken txostenaren arabera, oraindik hainbat estatuk heriotza zigorra jasotzen dute haien zigor kodeetan.*

*Si bien existe una sólida y continua tendencia hacia la abolición de la pena de muerte en todas las regiones del mundo, como señala el último informe del Secretario General de Naciones Unidas, todavía existen numerosos estados que contemplan en sus códigos penales la pena capital.*

*Gaur egun oraindik ezin da ziurtatu Sistema Judizialak akatsik ez egitea, eta, hala izanda, ez da bidezkoa zigor neurri atzeraezinak ezartzea. Honez gain, jakina da heriotza zigorra ez dela berdin aplikatzen kasu guztietan, eta epaiek edo ebazpenek aurreiritzi zantzuak izaten dituztela kasu askotan Honen ondorio nagusia da maila sozioekonomiko baxuena izan ohi dutenek edota gutxietsitako arraza edo etniako pertsonek aukera*

*En la actualidad, todavía no se posible garantizar que el sistema judicial esté libre de errores, y siendo así, no es de justicia imponer medidas de castigo irreversibles. Además, es sabido que la pena capital no se aplica del mismo modo en todos los casos, y que las sentencias o resoluciones en muchos casos suelen mostrar trazas de prejuicios. La consecuencia principal de ello es que quienes suelen tener un nivel socioeconómico más bajo o las personas de*

P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

gutxiago dituztela zigor mota horiei ihes egiteko.

razas o etnias rechazadas tengan menos posibilidades de evitar ese tipo de condenas.

Azken 40 urteetan, munduko herrialde gehienak ari dira heriotza zigorra indargabetzearen alde egiten. 1960an munduko herrialdeen % 20ak abolitua zuen heriotza zigorra; gaur egun, ordea, munduko herrialdeen % 70 dira. Kausa hau bultzatzen duten mugimenduak azken 20 urteetan, gainera, izugarri handitu dira. Baina, zoritxarrez, heriotza zigorra gaur egun oraindik munduko herrialde askotako legedian onartua dago, eta aplikatu egiten da.

Estos últimos 40 años la mayoría de los países del mundo están abogando por la derogación de la pena de muerte. En 1960 el 20 % de la naciones del mundo había abolido la pena de muerte, en la actualidad, sin embargo, son un 70 % de los países. Además, estos últimos 20 años han crecido extraordinariamente los movimientos que impulsan esta causa. Pero, por desgracia, el ordenamiento legal vigente en muchas naciones del mundo reconoce y aplica la pena de muerte.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

Adibide bat dugu Saudi Arabia. Herri hori da heriotza zigorra gehien ezartzen duena hainbat delitutan, are indarkeriazkoak ez diren batzuetan ere (sorginkeria, apostasia...). Auzi prozedurek, sarritan, nazioarteko arauak hausten dituzte, askotan presoek argibiderik jasotzen ez dutelako prozesuaren bilakabideaz. Erruduntzat jo ditzakete behartuta edo engainuz lorturiko aitorpenak beste frogarik ez dagoela. Gainera, heriotza zigorra ezartzeak eragin perbertsiozkoa izaten du batez ere emakumeetan, exekuzio baten aurrean, familia osoaz arduratu behar izaten baitute, eta sarritan, droga banatzeko erabiltzen baitituzte —horren ondorioz, arrisku egoera berezian jartzen dituzte, jokabide horrek heriotza zigorrak ekar ditzakeelako—, eta lesbiana, gay, bisexual eta transgenero diren pertsonentzat, Iranen, Saudi Arabian eta Ugandan, adibidez, heriotza zigorra jaso baitezakete.

Un ejemplo es Arabia Saudi. Este país es uno de los que más aplica la pena de muerte por una amplia variedad de delitos, incluso algunos no violentos como la "brujería" o la apostasía. Los procedimientos judiciales a menudo incumplen las normas internacionales, pues en muchos casos los presos no son informados de la marcha de su proceso. Pueden ser declarados culpables sin más pruebas que las confesiones obtenidas mediante coacción o engaño. Asimismo, la aplicación de esta pena capital tiene una incidencia especialmente perversa para las mujeres que, ante en una ejecución se deben hacer cargo de toda la familia y que, a menudo son utilizadas como medios de transmisión de droga -lo cual les coloca en una situación de especial riesgo al entrañar esa conducta penas de muerte- y, para las personas lesbianas, gays, bisexuales y transgénero que pueden ser condenadas a pena de muerte en países como Irán, Arabia Saudí y Uganda.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza honek heriotza zigorraren aurkako honako adierazpena onartzen du.

Por todo ello, este Ayuntamiento Pleno aprueba la presente declaración contra la pena capital.

1. Donostiako Udalbatzak edozein gizakiren aurkako heriotza zigorra gaitzesten du, eta atxiki egiten zaio Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1948ko abenduan onartu zuen Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalari, pertsona guztiek bizitzeko eskubidea dutela aitortzen baitu, bai eta NBEk onartutako 62/149 eta 63/168 ebazpenei ere, heriotza zigorra ezartzean moratoria bat eskatzen zuten

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia San Sebastián muestra su repulsa ante la pena de muerte de cualquier ser humano y se adhiere a la Declaración Universal de Derechos Humanos, adoptada por la Asamblea General de la ONU en diciembre de 1948, que reconoce el derecho de toda persona a la vida y a las Resoluciones 62/149 y 63/168 de ka ONU, en las que se pedía una moratoria del uso de la pena de

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

*eta.*

*2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen du heriotza zigorraren kontrako adierazpen hau egun heriotza zigorra ezartzen duten munduko estatu guztien enbaxadetara jakinarazteko.*

*3.- Donostiako Udalbatzak bere gain hartzen du Amnistia Internazionalak Siti Zainaben kasuan abian jarri duen kanpainan parte hartzeko konpromisoa: Saudi Arabiak Madrilen duen enbaxadoreari eskatzen dio Siti Zainaben egoera fisiko nahiz psikikoaren nahiz egoera juridikoaren berri emateko. Honez gain, Espainiako Estatuari hertsatuki eskatzen dio, Espainiak sinatua duen Heriotza Zigorraren kontrako tratatua beteta, Saudi Arabiako gobernuari eska diezaiola Siti Zainab andrea nazioarteko legeek arautzen duten bermeekin epaitzeko".=======================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2014ko urriaren 23an.

*muerte.*

*2.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta a que esta declaración contra la pena capital sea puesta en conocimiento de las embajadas de todos los estados del mundo en los que se aplica la pena de muerte.*

*3.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián se compromete a participar en la campaña puesta en marcha por Amnistia Internacional en el caso de Siti Zainab: en consecuencia, solicita a la embajada de Arabia Saudi en Madrid información sobre la situación física y psíquica de Siti Zainab, así como sobre su situación jurídica. Además, insta al Estado Español a que, al hilo del tratado contra la pena de muerte que tiene suscrito, solicite al Gobierno de Arabia saudí que juzgue a la señora Siti Zainab con las garantías establecidas por la legislación internacional". ===================================*

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 24 de octubre de 2014.

**IDAZKARI NAGUSIA –**
**EL SECRETARIO GENERAL:**

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

**Juan Carlos Izagirre Hortelano**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06